



EUSKADIKO UDALEN ELKARTEA
ASOCIACIÓN DE MUNICIPIOS VASCOS

Europako 200 udaletik gorako 300 udal ordezkariak Bilbon aztertuko dituzte eGobernu, herritarren partaidetza, antolakuntza eta inklusio arloko aurrerapenak

- **Biltzarraren inaugurazioan Jokin Bildarratz Eudeleko elkarteburua, Idoia Mendia Justizia eta Herri Administrazio sailburua, Frédéric Vallier Europako Udalerri eta Eskualdeen Kontseiluko idazkari nagusia eta Javier Ossandon ELANET Sare Europarreko presidentea izan dira.**
- **EISCO Biltzarra Europako udalen berrikuntza-esparruko topaketarik garrantzitsuena da. Euren erronka, tokiko agenda digitala sustatzeaz gain, hurrengo urteetan 24 orduz herritarrei irekita egongo den administrazioa lortzea da.**
- **EISCO Bilboko Euskalduna Jauregian egingo da, maiatzaren 20tik 22ra bitartean, “Tokiko eGobernuaren aldeko talde-lana. Herritarren partaidetza eta zerbitzuen kalitatea” izenburupean. Bertan, Europako 16 herrialdeetako 40 praktika on baino gehiago aurkeztuko dira.**

Bilbon, 2010eko maiatzaren 20an. Jokin Bildarratz Eudeleko elkarteburuak, Idoia Mendia Justizia eta Herri Administrazio sailburuak, Frédéric Vallier Europako Udalerri eta Eskualdeen Kontseiluko idazkari nagusiak eta Javier Ossandon ELANET Sare Europarreko presidentek inauguratu dute EISCO Biltzarra, Bilbon. Bertan, Europa osoko Tokiko 200 Gobernutik gorako 300 ordezkariak baino gehiagok aztertuko dute zeintzuk izan diren udalek egin dituzten aurrerapenak eGobernu, herritarren partaidetza, antolakuntza eta inklusio arloetan.



EUSKADIKO UDALEN ELKARTEA
ASOCIACIÓN DE MUNICIPIOS VASCOS

EISCO Biltzarra berrikuntzaren esparruko topaketarik garrantzitsuen da Europako udalei dagokienez, eta Eudelek Biltzarra Euskadin egin zedin nahi izan du, ekimenak bat egiten duelako bere Gida Planean finkatu zituen funtsezko bi helbururekin: Euskadiko udalen modernizazioa eta irekiera.

EISCOk urrats bat gehiago ematen du “24 / 365 Udalak” delakoetara heltzeko, hau da, herritarrei etengabe irekita egongo diren udaletara heltzeko. Topaketa honi esker, hobeto ezagutu ahal izango dira esparru honetako “praktika on” europar onenak, eta “fusioa” praktikatzeko aukera emango du; modu horretan, teoriarik ikasitakoa praktikan aplikatu ahal izango da. “Tokiko eGobernuaren aldeko talde-lana. Herritarren partaidetza eta zerbitzuen kalitatea” izenburupean, 40 praktika onetik gora aurkeztuko dira, denak ere Europako dozena bat herrialde baino gehiagokoak: Portugal, Italia, Holanda, Danimarka, Norvegia, Erresuma Batua, Austria, Finlandia, Polonia, Txekiar Errepublika, Belgika, Espainia... eta, nola ez, Euskadi izango dira bertan. Ermua, Arrigorriaga, Irun, Portugalete eta Bilboko udalek euren praktika onak aurkeztuko dituzte EISCOn. Denak izango dira eGobernuari, herritarren partaidetzari, antolakuntzari edo inklusio sozialari buruzko proiektuak.

Gainera, Europa osoko adituek eta hainbat herrialdeetako udalerrri eta eskualde elkarteetako ordezkariak esperientziak trukatu dituzte, eta egun horietan Tokiko Agenda Digitalaren (TAD) aurrerapena aztertuko dute, bai eta sare digitalen eta komunikazioko tresnen bitartez izan duten berrikuntza ere.

Tokiko Agenda Digitala EISCO biltzarretako gai nagusietako bat da, 2005etik hona. TAD Europako udalerrri, hiri eta eskualdeetako Informazioaren Gizartearen toki/eskualde garapenerako eta gobernu onerako Plan Estrategikoa da. Hori dela eta, EISCO 2010 Biltzarraren bitartez, Tokiko Agenda Digitalak azken urteotan



EUSKADIKO UDALEN ELKARTEA
ASOCIACIÓN DE MUNICIPIOS VASCOS

Europar Batzordearen partaidetzarekin. Era berean, Biltzarrean, TADarekin erlazionatutako Europako zenbait esperientzia pilotu erakutsiko dira, eta, IKT aukerak erabiliz, administrazioak modernizatzeko eta herritarrei zerbitzu emateko daukan eraginkortasuna aztertuko da.

EISCO 2010 EUDEL Euskadiko Udalen Elkarteak antolatu du, Europako Udallerri eta Eskualdeen Kontseiluaren (CEMR) eta ELANET sare europarraren lankidetzarekin, eta Europar Batzordearen bultzadarekin.

EISCO 2010	
Talde-lana, tokiko eGobernuaren alde Herritarren partaidetza eta zerbitzuen kalitatea	
Maiatzak 20, osteguna	
08:30 – 09:30	Erregistroa
09:30 – 10:15	Irekiera saioa <ul style="list-style-type: none">• Burua: Javier Ossandon jauna, ELANETen ohorezko presidentea (CEMR)• Ongi etorria:• Idoia Mendia andrea, Justizia eta Herri Administrazio Sailako Sailburua, Eusko Jaurlaritza• Jokin Bildarratz Sorron jauna, EUDELeko Presidentea• Frédéric Vallier jauna, CEMRko Idazkari Nagusia
10:15 – 10:45	Kaferako atsedena
10:45 – 12:15	Testuinguruan sartzea: <ul style="list-style-type: none">• Burua: Enrique Barón Crespo jauna, Informazioaren Gizartearentzako Europar Fundazioaren Presidentea (Espainia)• Gai nagusiak:<ul style="list-style-type: none">○ Ekarpen digitala EBko 2020 Estrategiari - Francisco García Morán jauna, DG Informatics-en Zuzendari Nagusia, Europar Batzordea (Brusela, Belgika)○ Toki Berrikuntzaren Agenda: Euskal eredu: Bittor Oroz jauna,

	<p>Ataungo Alkatea eta Xabier Sabalza jauna, Eusko Jaurlaritzako Berrikuntzako eta Informazioaren Gizarteko Zuzendaria</p> <ul style="list-style-type: none"> ○ Gure bidea web 2.0. gizarterantz: Michele Vianello jauna, VEGAKo Zuzendari Nagusia (Veneziako Ataria Zientzia eta Teknologiarako), Veneziako Alkateorde ohia (Italia)
12:15 – 13:00	<p>Elkarrizketa moderatua hiru hizlariekin eta entzuleentzat irekia</p> <p>Moderatzailea: Enrique Barón Crespo jauna, Informazioaren Gizartearentzako Europar Fundazioaren Presidentea (Espainia)</p>
13:00 – 13:15	<p>EISCO 2010eko bidaiaria orria – Svein-Erik Wilthil jauna, CEMRren e-Gobernuari eta Informazioaren Gizarteari buruzko Politikaren Batzordearen Presidente ohia, Norvegiako Udalerri eta Erregioetako Agintaritzen Elkartearen Zuzendariondokoia (KS), (Norvegia)</p>
13:15 – 14:30	<p>Bazkaria</p>
14:30 – 14:45	<p>Herritar aktiboak + “e” = zerbitzu hobekak?</p> <p>Saio interaktiboetarako hitzaurrea</p> <ul style="list-style-type: none"> • Burua: Renato Bartolini jauna, Berrikuntza eta Teknologiko zinegotzia Terni irian – AICCRE (Italia)
14.45 – 16.15	<p>Hiru saio paralelo:</p> <p>A Saioa – Aurkezpenak gai hauek joratzeko:</p> <ul style="list-style-type: none"> Parte-hartzea eta demokrazia Efizientzia eta prezio-kalitate erlazioa Inklusioa, ahalduntzea (empowerment) eta trebakuntza <ul style="list-style-type: none"> • Burua: Geert-Jan ten Brink jauna, AA en Hunze udalerria (Holanda) • Aurkezpenak: <ul style="list-style-type: none"> ○ <i>Gipuzkoa Parte Hartzen.</i> Kultura politiko berri bat: Imanol Lasa Zeberio jauna, Gipuzkoako Foru Aldundia ○ <i>Lurraldea ahalduntzeko Erregio-estrategia - Vale do Ave Região Digital.</i> Isabel Ferreira andrea, Vale do Ave Região Digital (Portugal) ○ <i>Informazioaren Inpaktua Ebaluatzea:</i> Ralph Pans jauna, VNG (Holanda) <p>B Saioa— Mahai-inguruetakoa saioak: Herritarren gizarteratzea eta konpromisoa lortzeko erronkak:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Burua: Javier del Pozo jauna, IT4ALLeko Idazkaritza Betearazlea. TECNALIA Berrikuntza Sistemak • 6 Kasu: <ul style="list-style-type: none"> ○ <i>Helsinki Hiriko Zerbitzuen Mapa:</i> Helsinkiko Miriam Heikkinen andrea eta Heli Rantanen andrea, Helsinki hirikoak (Finlandia) ○ <i>Dinamizaticak. Landa-eremuak Informazioaren Gizartean integratzeko bidea:</i> Juan Pablo Medrano jauna, Landaren eta Itsasertzaren Garapenerako zuzendaria, Eusko Jaurlaritza) ○ <i>Irunqo World Cafe gazteak inplikatzeko:</i> Miquel Angel Paez Escamendi

	<p>jauna, Irungo alkateordea.</p> <ul style="list-style-type: none">○ <i>PORTUSODIOS Hurbiltasunaren Komunikazio Mugikorra</i>: Ángel Anero Murga jauna, Teknologia berrien eta komunikazioko zinegotzia, Portugalete○ <i>Jaén Provincia Digital</i>: Mercedes García Serrano andrea, Jaengo probintziako diputazioa (Espainia)○ <i>Arriskuko mapa (Risk Map)</i>: Michelle Fransen andrea, Interprovinciaal Overleg (Holanda). <p>C Saioa — Mahai-inguruetako saioak: eZerbitzu eraginkorrak eskaintzeko baldintzak</p> <ul style="list-style-type: none">• Burua: Karl-Filip Coenegrachts jauna, Gante hiria (Belgika)• 7 Kasu:<ul style="list-style-type: none">○ <i>UDALBARRIA – erabateko eraldaketa (Udala, antolakuntza eta zerbitzuak, Marka)</i>: Asier Albizua Manrique jauna, Arrigorriagako Udala○ <i>EB-Txina foroa</i>: Baudouin de Sonis d'Espujos jauna, e-Forumeko Zuzendari Nagusia (Belgika)○ <i>Smart Cities – e-gobernu hobe eta eraginkorragoa eskaintzearen inguruan ikasi duguna</i>: Sheila Apicella andrea, ESD-Toolkit (Erresuma Batua) eta Dave Fitch jauna, Edinburgoko Napier Unibertsitatea (Erresuma Batua)○ <i>IKT arkitektura normalizatu bat toki gobenrurako</i>: GEMMA: Mr. Jeffrey Gortmaker, KING, Holandako Udalerrietako Kalitatearen Institutua (Holanda)○ <i>ARABAKO zerbitzu publikoak</i>: Izaskun Martínez de la Hidalga andrea, Arabako Foru Aldundiko Toki Administrazioarako Zuzendaria○ <i>Bilbao 2012 Agenda Digitala</i>: Marcos Muro jauna, Bilboko Udala○ <i>GIZ-K</i>: Roland Wohlahrt jauna, Karintiako Udal Informatika Zentroa (Austria).○ <i>EUSKAL SAREA-JASO</i>: Txema García Orois jauna, Eusko Jaurlaritzako Informatika eta Komunikazioko Zuzendaria
16.15 - 16.45	Kaferako atsedena
16.45 – 17.30	<p>Osoko bilkura laburtua – anfitrioiek saio paraleloak aurkeztuko dituzte eta eztabaida egingo da</p> <ul style="list-style-type: none">• Burua: Izaskun Martínez de la Hidalga, Arabako Foru Aldundiko Toki Administrazioarako Zuzendaria
17.30	Lehen jardunaldiaren amaiera

<p>09:30 – 10:00</p>	<p>Tokiko Agenda Digitala - Ideia on bat errealitate bihurtu behar da!</p> <ul style="list-style-type: none"> • Gai nagusiak: <ul style="list-style-type: none"> ○ <i>TAD prozesuaren ezarpena eta IKT zerbitzu publikoen eskaintza hobetzea toki mailan, Europa osoan</i> Javier Ossandon jauna, ELANETen Ohorezko Presidentea (CEMR), Berrikuntza Arloaren Zuzendaria, Ancitel (Italia) ○ <i>e-Inklusioa eta komunitate-sareak berrikuntzaren motor bezala Europako erregio-testuinguruetan</i> Hervé Le Guyader jauna, eris@ko Presidentea, AECko Zuzendari Gerentea, Akitania Erregioa (Frantzia)
<p>10:00 – 10:15</p>	<p>Herritar jabetuak eta funtzionario publiko e-gaituak:</p> <p>Saio paraleloetarako sarrera (EISCO 2010 ZMak)</p> <ul style="list-style-type: none"> • Burua: Annalisa Giovannini andrea, Anciteko eCapacity Building eta Erakundearen Aldaketaren Dibisioko zuzendaria (ANCI) (Italia))
<p>10:15 – 11:45</p>	<p>Saio paraleloak:</p> <p>A Saioa —Herritarren jabekuntza</p> <ul style="list-style-type: none"> • Burua: Irina Zalisova andrea, EPMAko Zuzendari nagusia, Vysocinako eskualdea (Txekiar Errepublikak) • 4 Jardunbide egoki: <ul style="list-style-type: none"> ○ <i>Leihatila Birtual Mugikorra:</i> Geert-Jan ten Brink jauna, AA en Hunze udalerrria (Holanda). ○ <i>e-mili@ - hezkuntza eta informazioaren gizartera iristeko estrategia bat, bideak bultzatzeko adineko pertsonen artean:</i> Cristina Ribeiro andrea, Sta. Maria de Feira udalerrria (Portugal). ○ <i>Telematic S@C Hiritarrentzako Zerbitzuen Proiektua:</i> José Antonio Santano jauna, Irungo alkatea ○ <i>EUROCITIESen Banda Zabalen estrategia:</i> Frits Huffnagel, Hiriko Marketin Alkateordea, Haga (Holanda) <p>B Saioa - Funtzionario publikoen E-gaitasuna</p> <ul style="list-style-type: none"> • Burua: Ibon Oñate jauna, BiscayTIK Fundazioko Zuzendari Nagusia, Bizkaiko Foru Aldundia • 4 Jardunbide egoki: <ul style="list-style-type: none"> ○ <i>Enbaxadore Digitala: e-prestakuntza Danimarkako udalerrietako funtzionarioentzat:</i> Bjørn Borre, Danimarkako Toki Gobernuak. ○ <i>e-prestakuntza Norvegiako udalerrietako zuzendari gerenteentzat:</i> Line Richardsen andrea, Norvegiako Udalerrri eta Erregioetako Agintaritzen Elkarteak. ○ <i>Biscaytik. e-Zerbitzuak Bizkaiko udalerrri guztientzat:</i> Jon Vázquez jauna, Biscaytik Fundazioa. Bizkaiko Foru Aldundia ○ <i>iSac:</i> Salvatore Marras jauna, Informazio Zerbitzuen Burua, FORMEZ (Italia). <p>C Saioa - Antolaketa eta lan prozesuen aldaketa</p>

	<ul style="list-style-type: none"> • Burua: Boris Tonhauser jauna, CEMRko Demokrazia eta Gobernanzarako Eragile Politikoa, (Brusela, Belgika) • 4 Jardunbide egoki: <ul style="list-style-type: none"> ○ <i>ermu@ (urtean 365 egunez zabalik, 24 orduz egunean):</i> José Antonio Fernández Celada jauna, Ermua Udalerria ○ <i>Zerbitzu integratuak: pertsonak erdigunean, prozesua alde batera!:</i> Johan van der Waal jauna, DIVOSA (Holanda) ○ <i>IKTen onurak bereganatzen Norvegiako udalerrri batean.</i> Evy-Anni Evensen andrea, Zuzendari Gerentea, Lyngdal udalerria (Norvegia) ○ <i>Castello hiriko Mantenu Zerbitzua (SMC):</i> Juan José Pérez Macián jauna, Berrikuntza eta udal zerbitzuen kalitaterako zinegotzia, Castello udalerria (Espainia).
11:45 – 12:15	Kaferako atsedena
12:15 – 13:00	<p>Osoko bilkura laburtua – anfitrioeiek saio paraleloak aurkeztuko dituzte eta eztabaida egingo da</p> <p>Burua: Michael Hockeler jauna. KGSt (Alemania)</p>
13:00 – 14:30	Bazkaria
14:30 – 14:45	<p>e-Zerbitzuen potentziala gureganatuz</p> <p>Saio paraleloei buruzko hitzaurrea</p> <p>Burua: Khedija Zammouri andrea, Tunisiako Lehen Ministroaren bulegoa</p>
14:45 – 16:15	<p>Saio paraleloak:</p> <p>A Saioa - Elkarbanatutako testuinguru tekniko eta eredu komuna garatzea</p> <ul style="list-style-type: none"> • Burua: Gianpiero Zaffi-Borgetti jauna, ANCI (Italia) • 5 Jardunbide egoki: <ul style="list-style-type: none"> ○ <i>Udal Katastro eta Zerga Sistema Elkarreragingarria Italian:</i> Dario Gambino jauna, Fabbriche di Vallico udalerria (Italia). ○ <i>e-Gobernuko Erreferentzia Austriako Hirientzat (Hiri Digitalen Ekimena):</i> Ronald Sallmann jauna, Austriako Hiri eta Herrien Elkarte ○ <i>CROSSROAD Proiektua (Horizonte Berriak Diseinatzen Gobernantza Elektronikoaren alorreko IKTen Ikerkuntzarako eta Politiken Moldaketarako, Txekiar Errepublikan).</i> Aleš Pekárek jauna, Europako Proiektuak eta Kudeaketa Agentzia (Txekiar Errepublika) ○ <i>Geointegrazioa:</i> Kyrre Jordbakke jauna, Norvegiako Kartografiaren Agintaritz ○ <i>Digital Document Box and Easy SMS ekimenaren aurkezpena:</i> Rikke Saltoft Andersen andrea, Gobernu Kudeaketaren Agentzia eta Anne Kathrine Fjord andrea, Danimarkako Tokiko Gobernu (LGDK) (Danimarka) <p>B Saioa - Elkarreragingarritasuneko aukerak Administrazio publikoetarako – ISA Programaren aurkezpena</p> <ul style="list-style-type: none"> • Burua: Francisco García Morán jauna, DG Informatics-en Zuzendari Nagusia, Europar Batzordea . • Gaiak:

	<ul style="list-style-type: none"> ○ <i>ISA programaren sarrera</i>: Karel De Vriendt, ISA Programako Atalaren Burua, DG Informatics, Europar Batzordea ○ <i>Konpartitzea, berrerabiltzea eta kolaboratzea</i>: Szabolcs Szekacs jauna, ISO Programako Proiektu Burua, DG Informatics, Europar Batzordea ○ <i>Toki Inplementazioa</i>: Miguel A. Amutio jauna, Lehendakariatzako Ministerioa, Espainiako Gobernua <p>C Saioa — Informazioaren indarra ustiatzea, aldi berean, pertsonen segurtasuna eta pribatutasuna bermatuz</p> <ul style="list-style-type: none"> • Burua: Iñaki Vicuña jauna, Datuen Babeserako Euskal Agentziaren Zuzendaria • 5 Jardunbide egoki: <ul style="list-style-type: none"> ○ SGATE: Valentino Ditoma jauna, Ancitel S.p.A. (Italia) ○ <i>FASTeTEN (teknologia malgua garatzeko metodologia bat, Europako zenbait testuinguru administratibotan)</i>: Baudouin de Sonis jauna, e-Forum (Belgika) ○ <i>Informazioaren Azterketa eta Segurtasuna</i>: Fernando Marín Gurrea jauna, Kataluniako Generalitatea ○ <i>Oinarrizko Erregistroen Sistema eta Holandako udalerrien rola</i>: Han Polman jauna, Bergen op Zoom hiriko Alkaleta, Holandako Udalerrien Elkartearen izenean (Holanda) ○ <i>Open Data Euskadi Proiektua</i>: Alberto Ortíz de Zarate jauna, Eusko Jaurlaritzako Herritarren Parte-Hartzearen zuzendari nagusia
16:15 – 16:45	Kaferako atsedena
16:45 – 17:30	Osoko bilkura laburtua <ul style="list-style-type: none"> • Burua: <Baiezatzetze>
17:30	Ostiraleko jardunaldiaren amaiera

Maiatzak 22, larunbata	
09:30 – 10:15	Tokiko eta eskualdeko e-gobernuen estrategiak ezartzeko CEMR eskuliburuaren aurkezpena <ul style="list-style-type: none"> • Gai nagusia: <ul style="list-style-type: none"> ○ Svein-Erik Wilthil jauna, CEMRren e-Gobernari eta Informazioaren Gizarteari buruzko Politikaren Batzordearen Presidente ohia, Norvegiako Udalerri eta Erregioetako Agintaritzen Elkartearen Zuzendariondokoa (KS), (Norvegia).
10:15 – 10:45	Estrategiatik ekintzetara igarotzea <ul style="list-style-type: none"> • Gai nagusiak: <ul style="list-style-type: none"> ○ <i>ELANET CP eraikitzea (praktikako komunitatea) Europa osoko e-Gobernuko adituak biltzeko</i>. Rui Barros jauna, ELANET-CPren koordinatzailea, INESCen Proiektu Burua, Oporto (Portugal)

	<ul style="list-style-type: none"> ○ <i>CEMSDI proiektua toki agintaritzei laguntzeko e-Gobernua beren lurraldeetan planifikatzeko eta kontrolatzeko lanean.</i> Rosi Somerville andrea, IDEA (Erresuma Batua) ○ <i>ADD ME! ekimena: e-prestakuntzarako ekimen bat, nazioarteko bitartekarien sare sendo bat eratzeko, bazterketa sozial eta digitalaren aurka borrokatzeko IKT duten zerbitzu publikoen erabileran.</i> Carlo Maria Medaglia jauna, CATTID – Erromako Unibertsitatea ‘Sapienza’ (Italia)
10:45 – 11:15	Kaferako atsedena
11:15 – 12:15	<p>Mahai-inguru moderatua: Egiteko dagoen bidea</p> <ul style="list-style-type: none"> • Moderatzailea: <ul style="list-style-type: none"> ○ Angelika Poth-Mögele andrea, CEMRren Politika Zuzendaria (Brusela, Belgika) • Parte-hartzaileak: <ul style="list-style-type: none"> ○ Markku Markkula jauna, CoR – EBko Erregioen Batzordea (Brusela, Belgika) ○ Geert-Jan ten Brink jauna, CEMR (Holanda) ○ Rui Barros jauna, ELANET-CPren Koordinatzailea, INESCen Proiektu Burua Oporto (Portugal) ○ Carlos Totorica jauna, Ermuko Alkatea eta EUDELeko Batzorde Eragilearen bazkidea ○ Hervé Le Guyader jauna, eris@ko presidentea, AEC – Akitania Erregioa
12:15 – 13:00	<p>Konferentziaren azken saioa – Bilboko EISCO 2010eko adierazpena-</p> <ul style="list-style-type: none"> • Burua: Rosi Somerville andrea, ELANET-CP, IDEA (Erresuma Batua) • Gai Nagusiak: <ul style="list-style-type: none"> ○ <i>Konferentziaren amaierako adierazpenaren aurkezpena.</i> Iñigo Gómez jauna, Euskadiko Udalen Elkarte, EUDEL ○ <i>Adierazpena onartzea</i> ○ <i>Hurrengo EISCO konferentziaren aurkezpena, Guimarães (Vale do Ave Erregioa).</i> Jerónimo Silva jauna, VARD2015 (Portugal) ○ <i>Amaierako iruzkinak.</i> Mar Zabala Mardaras andrea, Euskadiko Udalen Elkarte EUDEL
13:00	Kongresuaren amaiera